



**Sustrai
Colina**
Akordarrementeria



PIROPO SORTA



Doinua:

*Kontu barri bat suzedidu da !!
Kopla handia*

Maiteminduta gauzkan horri, tori piropo sorta, azukre-eztitan lika-lika eginda.

Zure irriak esnatzen ditu
zaborrontziak **loretan**,
izotz-mendiak palmondopean
eta zebra **koloretan**.

Zure ezpainen ortzadarrezko
bihotz baten forma **dute**:
zure hortzetako aparatua
konpartitu nahiko **nuke**.

Semaforoko panpina banintz
gurutzatzean **karrika**
gorritu gabe zure atzetik
joango nintzake **korrika**.

Estudiatzen ukondorik ez
dut urratu ohi **mahaietan**
zuri so egon ahal izateko
azterketa **garaietan**.

Zu bazinake ogia eta
ni ontza bat **txokolate**
ez al nintzake zugan urtuko
Nutella bihurtu **arte?**

Pagari ere uko egiten
diot aspaldi **honetan**
zure irudia agertu arte
billete ta **txanponetan**.

Segapotoko zure pantaila
izan nahi nuke **lantzean**
emotikono bat sentitzeko
zure hatzek **laztantzean**.

Nahiz orain arte karanbola bat
zen ilargi **eklipsea**
orain nahikoa da zu gauetan
komunera **jaikitzea**.